

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Krisia? Gizartearena

A

zken urteotan egunero entzuten dugun hitza da. Hainbeste aldiz entzun ondoren gure paisaian kokatu dugu eta orain krisi horren aitzakiarekin etorriko zaigun edo zaizkigun murrizketak besterik ez ditugu espero. Politikariek, gure agintari politikoek, krisi ekonomikoaren ildotik urteetan eraikitako gizartearen eraldatu nahi dute. Osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoa, irakaskuntza, gutxieneko zerbitzuak, garraioak, laguntzak... denak murrizten ari dira, bai eta greba eskubidea, protesta egiteko aukera, ahotsa altxatzeko asmoa ere. Egoera latzean gaude.

Krisi ekonomiko (ekonomikoa baldin bada) horren haritik bestelako mugimenduak ere etorri dira, euskal prentsaren aldekoa esaterako. Eta hemen, laguntza beharrezkoa bada ere, bada beste krisi bat, are kezka-garriagoa, are larriagoa, nire ustez.

Unibertsitatean ari naiz, gazte euskaldunak inguraturik, eta ez diet aparteko kezkarik ikusten euskal kulturarekiko. Kasu bakan batzuk kenduta gure gazteek ez dute euskal prentsaren beharrik sentitzen, ez dute kulturaren dirurik gastatzen... eta ausartuko nintzaketek esatera ez dutela euskal kultura kontsumitzen. Inork egin al du euskal irakurleen azterketarik?



ALEX LARRETXI

Nork erosten du euskal prentsa? ARGIA aldizkari honen harpidedunen batez besteko adina zein da?

Euskal kulturak militantzia behar du, oraindik ere gauza asko militantismoz egin behar dira, baina euskal kulturak, batez ere, kontsumitzaileak behar ditu; euskarazko liburuak irakurtzen dituzten irakurleak, euskarazko prentsa irakurtzen dutenak eta antzoki edo zinemetara joaten direnak, euskal abeslarien kontzertuetara hurbiltzen direnak. Eta horretarako bi erronka nagusi ditugu, eta bietan saiatu beharko genuke gogoz; batetik kalitatezko produktuak eskainiz, kontsumitzailea edukiagatik (ere) erakartzen dituzten produktuak; eta bestetik azken urteotako dinamika apurte beharraz. Kezkagarria da unibertsitateko ikasleen artean, esaterako, dagoen ezjakintasuna euskal kulturaz; bitxia ikustea euskaraz ikasketak egin dituzten horiek zein prentsa irakurtzen duten; harrigarria politikoki hain kontzientziatuta dauden herritarrek ez dutela beren sosik gastatzeko beharrik

Euskal kulturak militantzia behar du, oraindik ere gauza asko militantismoz egin behar dira, baina euskal kulturak, batez ere, kontsumitzaileak behar ditu

ikusten.

Krisia dugu inguruan, baina euskal gizartean dagoena, euskal kulturaren inguruan sortarazten dena ekonomiaz haragokoa da. ■



TXANDAN

Josu Amezaga



Unibertsitatearentzat independentzia, alegia, Espainiako Gobernuaren hartzen ari den neurriek unibertsitatea ere ukitzen dute. Raxoiren taldearen lehen erabakieta-ko bat funtzio publikoko kontratazioak etetea izan zen. Estatuko unibertsitateek ez dute protestarik egin horregatik, irakasle berriak kontratatzea baino gehiago daudenak kaleratzea baitute buruan. Alabaina muga handia izan da UPV/EHUREntzat; izan ere, prekaritate arazo handiak izan arren, aurreikuspenetan garapena ziurtatzeko lanpostuak ateratzea baitzegoen.

Geroago ikasleen tasak nabarmen igotzeko agindu

Independentzia

du Madrilek; berriz ere Espainiako unibertsitateak pozik, horrekin beren egoera ekonomiko tamalgarria arinduko dutelakoan; baita berriz ere, UPV/EHUREn aurreikuspen eta beharrezkoen aurka. Azkenik irakasleen irakaskuntza orduak igotzea erabaki du PPK. Errektore espainol gehienak pozik, horrela milaka irakasle kaleratu ahal izango baitituzte. Baina Baskongadetako unibertsitate publikoari ez dio inolako mesederik egiten, eta neurria nola saihestuko dabil. Unibertsitate publikoak ere, independentzia aldarrikatu beste biderik ez dauka, bere burua itoazazita ikusi nahi ez badu. ■

